

OBRA ETA LEHEN OKUPAZIORAKO LIZENTZIAK

Obra lizentziak	<u>Euroak</u>
- 14.000,00,- €rainoko Obrak	45,70 €
- 14.000,00 €tik gorako Obrak	45,70 € + 1€ gehiago, 14.000€tik gorako 1.000€ bakoitzeko.
Tasaren kopurua 3.130,00 eurokoa izango da gehienez.	
Lehen okupaziorako lizentziak	
- Etxebizitza bakoitzeko	45,70 € + 0,5 € eraikitako m ² ko
- Merkatal lokala, m2ko	45,70 € + 0,5 € eraikitako m ² ko
- Industria Pabiloi, modulua eta antzekoak	183 € + 0,25 € eraikitako m ² ko
- Garajeko	22,85 € plazako
Hondamen espedienteen tramitazioa	635,00 €

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK

1. -Lizentziari uko egitea.

Lizentzia emateari buruzko udal erabakirik hartzen ez den artean, intersatuak bere eskariari uko egin ahal izango dio, kasu honetan tasa aipatutako lizentzia eman izan balitzaio ordaindu beharko zukeenaren %20ra murriztuko delarik. Espresuki egin beharko den uko egite edo bertan behera uzte honek, lizentzia emateko erabakia hartu ondoren formulatutakoan, ez du dagokion tasaren murriztapen edo itzulketarako eskubiderik ekarriko.

2. -Lizentzien transmisioak.

Edozein motatako hirigintza lizentzien transmisioak, emandako jatorrizko lizentziagatiko tasari dagokion zenbatekoaren %50eko tasarekin kargatuko dira.

Beasain, 2.023ko Urria